



## ALKATEAREN DEKRETUA

### GASTEIZKO UDALEAN EZKONTZA ZIBILEN ZEREMONIAK ARAUTZEKO

Gasteizko Udalean, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen artean, ezkontza zibilen zeremoniak ospatzen dira, honako hauetan ezarritakoarekin bat etorriz: Kode Zibilaren IV. Titulua —alkateek ezkontza zibila baimentzeari buruzko abenduaren 23ko 35/1994 Legeak aldatua—; Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legearen 58. artikulua; Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 1995eko urtarrilaren 26ko Instrukzioa, alkateek ezkontza zibila baimentzeari buruzkoa, eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko urtarrilaren 10eko Instrukzioa, alkateek ezkontza zibilak egiteko lekuari buruzkoa.

Ezkontza zibilak hainbat protokolo eta izapide betez egiten dira, eta beharrezkotzat jo da horiek dokumentu bakar batean biltzea, informazioa modu zehatzagoan eta ordenatuagoan eskaintzeko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateari dagokio, besteak beste, b) udal politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea. Beraz, hau

### XEDATU DUT

**XEDAPEN BAKARRA.- Gasteizko Udalean ezkontza zibilak egiteko prozedura eta arauak onestea.**

**1.- Xedea:** Dekretu honen xedea da Gasteizko Udalean egiten diren ezkontza zibilen zeremonien antolaketarekin lotutako alderdiak arautzea. Zerbitzuak emategatik ordaindu beharreko prezio publikoari dagokiona 8.14 ordenantza fiskalean (Ezkontza zibilak egiteko zerbitzuak emategatik ordaindu beharreko prezio publikoa) arautzen da —edo horren ordez ezar litekeenean—.

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></i> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.</b> <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
<b>Sinatzailearen izena</b> <i>Firmado por</i>	MAIDER ECHEVARRIA GARCIA (Alcaldesa de Vitoria-Gasteiz)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru)</b> <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM	<b>Data eta Ordua</b> <i>Fecha y Hora</i>	05/09/2024 17:01:23
<b>Zerbitzaria</b> <i>Servidor</i>	<b>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala</b>	<b>Orrialdea</b> <i>Página</i>	1/6
 EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM			

## 2. Lekua:

Ezkontza udaletxean izango da (Espainia plaza 1). Zeremoniak Harrera Aretoan egin ohi dira. Alkateak udaletzeko beste lekuren bat erabiltzeko baimena ere eman dezake, beharrezkotzat joz gero.

## 3.- Ordutegiak, datak, iraupena, edukiera eta ekitaldiaren garapena:

Ezkontzak larunbatetan egiten dira, jaiegunetan, zubietan eta abuztuan izan ezik, ordu hauetan: 12:00, 12:30, 13:00, 13:30, 18:30, 19:00 eta 19:30. Urtarrilean, otsailean, azaroan eta abenduan, aldiz, ezkontzak goizeko ordutegian baino ez dira egiten: 12:00, 12:30, 13:00 eta 13:30.

Zeremoniak ordu erdi iraungo du gehienez.

Alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotziak egingo ditu ezkontzak, eta arau hauek betetzeko eta betearazteko erantzukizuna izango du. Erantzukizun hori ez betetzeak gerora ezkontza zibilak baimentzeko eskumenak eskuordetzea mugatzea ekarriko du.

Nahi izanez gero, ezkontza udalbatzako kide jakin batek egin dezala eskatu ahalko dute bikoteek, talde politiko bakoitzak horretarako duen egutegia kontuan izanik. Hala ere, Udalak beretzat gordetzen du zeremonia aukeratutako pertsona ez den beste batek egiteko eskubidea, edozein arrazoi dela eta pertsona hori ezin bada bertaratu.

Zeremonia egiteko, adinez nagusi diren bi lekuko egotea eskatuko da.

Antolaketa-arrazoiak direla eta, 100 pertsona sartu ahal izango dira udaletxera, ezkongaiak, lekukoak eta ezkontzan parte hartu behar duten udal langileak alde batera utzita.

Ezkontzak euskaraz, gaztelaniaz edo Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, ezkongaiak eskatzen dutenaren arabera.

<p><b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b>  <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></i>  <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.</b>  <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i></p>			
<b>Sinatzailearen izena</b> <i>Firmado por</i>	MAIDER ECHEVARRIA GARCIA (Alcaldesa de Vitoria-Gasteiz)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru)</b> <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	EUSTQHV5SMVB4XHSTUAQQMZDM	<b>Data eta Ordua</b> <i>Fecha y Hora</i>	05/09/2024 17:01:23
<b>Zerbitzaria</b> <i>Servidor</i>	<b>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala</b>	<b>Orrialdea</b> <i>Página</i>	2/6
 EUSTQHV5SMVB4XHSTUAQQMZDM			



Ezkongaietako batek edo lekukoetako batek hizkuntza ofizialetako bat bera ere ez badaki, zinpeko interprete baten laguntza beharko du; itzuli beharreko bi hizkuntzak dakizkielarik itzulpen ofizialak egiteko Atzerri Gaietarako Ministerioren baimena duen pertsona da zinpeko interpretea. Kasu horretan, nahitaezkoa izango da, ezkontza-eguna baino lehen, interprete jardungo duen pertsona identifikatzea eta honako hauek eranstea: NAN/AIZ edo pasaportearen fotokopia, eta zinpeko itzultzailea dela egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia.

#### 4. Eskabideak aurkeztea:

Gasteizko Udalean ezkontza zibila egiteko erreserba aurrerapen nahikoarekin egin behar da, organo eskudunak —Erregistro Zibileko arduraduna, Justizia Administrazioako legelaria, notarioa, funtzionario / diplomatikoa edo kontsularra— ezkontza-akta edo -dosiera izapidetu ahal izan dezan. Ezkontza bi hilabete baino gutxiagoko aurrerapenarekin erreserbatzen bada, dagoeneko beste ezkontza batzuk agendatuta dauden larunbat batean egin beharko da, ordu tarte berean.

Erreserba formalizatzeko, eskabide-orria aurkeztu beharko da, zuzen beteta, eta ezkongaien NANaren, pasaportearen edo AIZren kopia. Eskaera sinatzen duenak Gasteizko Udalean ezkontza zibilen araudi hau betetzeko betebeharra hartzen du bere gain.

Data eta ordua erreserbatu ondoren, gehienez ere hamar egun balioduneko epean ordaindu beharko da dagokion tasa. Epe horretan erreserba ordaintzen ez bada, erreserba baliogabetutzat joko da, eta berriro hasi beharko da prozedura.

#### 5. Ezkontza-dosiera Erregistro Zibilean edo notarioan izapidetzea:

Ezkongaiak arduratu behar dira, aurrerapen nahikoarekin, notario-aktaren instrukzioa edo Erregistro Zibileko dosiera izapidetzeaz, gaitasun-betekizunak betetzen dituztela eta eragozpenik ez dagoela edo dispentsa dutela egiaztatzeko, Kode Zibilean aurreikusitakoaren arabera.

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopien osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></i> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.</b> <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
<b>Sinatzailearen izena</b> <i>Firmado por</i>	MAIDER ECHEVARRIA GARCIA (Alcaldesa de Vitoria-Gasteiz)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua)</b> <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM	<b>Data eta Ordua</b> <i>Fecha y Hora</i>	05/09/2024 17:01:23
<b>Zerbitzaria</b> <i>Servidor</i>	<b>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala</b>	<b>Orrialdea</b> <i>Página</i>	3/6
 EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM			



Erreserbatutako data baino 5 egun balioudun lehenago Udalak ez badu jaso Erregistro Zibilaren baimena edo ezkondu aurreko dosierraren erabaki-akta (notarioaren aurrean izapidetutakoa), ezingo da zeremonia egin.

Bestetik, ezkontza baino hilabete lehenago, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Lekuko izango diren pertsonen NANA.
- Ezkontzaren egunean Espainia plazara sartuko diren autoen matrikulak (gehienez 2).

#### 6. Zeremoniaren garapenarekin lotutako alderdiak:

- Ezkongaiak eta lekukoek zeremoniarako ezarritako ordua baino 10 minutu lehenago agertu beharko dute udaletxeko atean.
- Zeremonian zehar irakurketa, interpretazio edo musika girotze bakarria egin ahalko da, eta inoiz ez 3 minutu baino luzeagoa. Halakorik egin nahi bada, aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaio Udalari.
- Zeremonia egiten den aretoan ez da onartuko dagoenaz bestelako apaindurarik.
- Ezkontza-egileek, lekukoek, ezkongaiak edo bertaratuek ezingo dute aretoko apaindura kendu, aldatu edo manipulatu.
- Ezin da arrozik, konfetirik edo arrosa-petalorik jaurti, ez eta trakarik, petardorik edo bestelakorik erabili, ez udaletxean ez sarrera nagusian.
- Baimenduta dago ikuskizunak, dantzak, aurrekua edo bestelakoak egitea zeremoniaren irteeran, baina, nolahi ere, udaletxeko arkuetatik kanpo egin beharko dira, hurrengo ezkontzari sarbidea ez eragozteko.

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></i> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.</b> <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
<b>Sinatzailearen izena</b> <i>Firmado por</i>	MAIDER ECHEVARRIA GARCIA (Alcaldesa de Vitoria-Gasteiz)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua)</b> <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM	<b>Data eta Ordua</b> <i>Fecha y Hora</i>	05/09/2024 17:01:23
<b>Zerbitzaria</b> <i>Servidor</i>	<b>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala</b>	<b>Orrialdea</b> <i>Página</i>	4/6
 EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM			



- Ezkontza egin izana akta bidez jasoko da, eta ezkontza egin duen pertsonak, ezkongaiak eta lekuko diharduten bi pertsonak hiru aletan sinatuko dute. Zeremonia amaitu ondoren, Udalak aktaren kopia bat eta ekitaldiaren bi egiaztagiri emango dizkio bikoteari. Ezkontza-aktaren beste kopia bat ezkontza egin den lekuko Erregistro Zibilerara igortzen da, hark inskribatu eta ezkontza-ziurtagiria egin dezan.

- Ezkongaiak eta zeremoniara joaten direnek behar bezala jokatu beharko dute, eta udal instalazioak zaindu eta errespetatu beharko dituzte, betiere udal langileen jarraibideei kasu eginez. Kalteren bat sortuz gero, ezkongaiak erantzukizun solidarioa izango dute, kalte horiek eragin dituen pertsonarekin batera.

## 7. Maskotak:

Oro har, debekatuta dago ezkontza-ekitaldietan animaliak egotea. Hala ere, ezkongaiak baimena eskatu ahal izango dute ezkontzan konpainiako animalia bakarra egoteko, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Etxeko Animaliak Babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen eranskinaren A zatian jasota daudenetakoa izan behar du.

Horretarako, baimen-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, udalaren webgunean eskuragarri dagoen eredia baliatuz, espeziearen, arrazaren eta arriskugarritasunaren arabera titularrari eta animaliarri eskatzen zaizkien legezko betebeharrak betetzeari buruz.

Animaliak portaera eta higiene egokiak izan beharko ditu, eta, une oro, kontrolatuta egongo da – txakurra bada, uhalarekin eta, beste espeziearen batekoa bada, eramangailu baten barruan— eta espeziearen eta izan dezakeen arriskugarritasunaren arabera dagokion sektoreko legeria-espezifikoko segurtasun-neurriak beteko ditu.

Ekitaldiak irauten duen bitartean ezin izango zaie jaten edo edaten eman.

<b>Egiaztzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopien integritatea egiaztzeko ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></i> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.</b> <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
<b>Sinatzailearen izena</b> <i>Firmado por</i>	MAIDER ECHEVARRIA GARCIA (Alcaldesa de Vitoria-Gasteiz)		
<b>EKS (Egiaztzeko Kode Segurua)</b> <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM	<b>Data eta Ordua</b> <i>Fecha y Hora</i>	05/09/2024 17:01:23
<b>Zerbitzaria</b> <i>Servidor</i>	<b>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala</b>	<b>Orrialdea</b> <i>Página</i>	5/6
 EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM			



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Ezkontzaien erantzukizuna izango da animaliak udal bulegoetan eragin ditzakeen kalteei eta/edo galerei aurre egitea, bai eta leku horretan dauden gainerako pertsoneri ere.

## 8. Ezereztea eta datak aldatzea:

Ezkontzaien edozein unetan utz dezakete bertan behera ezkontza zibilaren tramitazioa eta ospakizuna. Eskubidea izango dute Ezkontza zibilaren zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen udal ordenantza fiskalak ezartzen duen itzulketa jasotzeko (gaur egun, % 50, baldin eta ezkontza zibilerako erreserbatutako eguna baino 30 egun natural lehenago ezerezten bada).

Epe bera izango dute ezkontza-data aldatu ahal izateko, hau da, ezkontza zibilerako erreserbatutako eguna baino 30 egun natural lehenago. Data berria ezin izango da hurrengo urte naturaleko abenduaren 31 baino beranduago ezarri.

Nolanahi ere, ordaindu beharreko prezio publikoa aldaketa formalizatzen den ekitaldi fiskalean indarrean dagoena izango da, eta, hala badagokio, dagokion doikuntza egingo da.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira hemen jasotako arauen aurka doazen edo horiekin kontraesanetan dauden udal dekretu eta jarraibide guztiak.

### AZKEN XEDAPENA.- Indarrean jartzea.

Dekretu honetan jasotako neurriak sinatzen den egunaren biharamunean sartuko dira indarrean.

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopien baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></i> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.</b> <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
<b>Sinatzailearen izena</b> <i>Firmado por</i>	MAIDER ECHEVARRIA GARCIA (Alcaldesa de Vitoria-Gasteiz)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru)</b> <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM	<b>Data eta Ordua</b> <i>Fecha y Hora</i>	05/09/2024 17:01:23
<b>Zerbitzaria</b> <i>Servidor</i>	<b>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala</b>	<b>Orrialdea</b> <i>Página</i>	6/6
 EUSTQHV5SMVB4XHSKTUAQQMZDM			